

INDARKERIAREN OI(H)ARTZUNAK

JULEN NAFARRATE AURREKOETXEA

Amaia Merinok eta Ander Iriartek euren proiektu berria, *Indarkeriaren oi(h)artzunak* dokumentala, aurkeztuko dute gaur Zinemiran. Euskal gatazkarekin lotura estua duen istorioa kontatu dute film honetan: isildutako istorioa, titular handietan agertzen ez den horietakoa, "inolako justiziarik eta aitortza ofizialik jaso ez duena, beste hainbat kasu, edo kasu guztiak, bezalaxe", zuzendarien hitzetan.

Tamara Muruetagoiena da filmaren protagonista. 1982an, Guardia Zibilak haren aita Esteban atxilotu zuen Oiartzunen. Bederatzi egunez inkomunikatuta izan zuten Donostian eta Madrilen, eta torturak pairatu eta gero, hiru egunetara hil egin zen. Dokumentalak berak salatzen duen bezala, oraindik ez du Estatuaren errekonozimendu ofizialik jaso. Ez berak, ez haren alaba Tamarak ere.

Amaia Merinok nabarmentzen duenez, "5.000 tortura kasu baino gehiago dokumentatu dira, baina Estatuak ez du bat bera ere aitortu". Ander Iriartek ere gertutik ezagutzen du torturaren errealitatea, bere aitak pairatu zuen, eta Zinemaldian aurkeztu zen *Karpeta Urdinak* (2022) lanean ere landu zuen: "Tortura denon izenean egin dute, denon instituzioekin egin dutelako,

# Justizia eta aitortza bilatzen duten oihartzunak



Iriartek eta Merinok Tamara Muruetagoienaren testigantzan oinarritu dute filma.

denon babesarekin, eta oraindik ez dago inolako aitortzarik".

Muruetagoienaren kasua hautatzeko orduan, istorioak duen izaera poliedrikoa hartu dute aintzat, "familia berean agertzen direlako gure lurraldean gertatu diren biolentzia ezberdinak. Ez da bat izan, edo bi, edo hiru, asko izan dira, alde ezberdinetatik etorri direnak, eta kasu batzuk paradigmaticoak dira. Hau da Tamararen kasua".

Adur Larreak egindako animazioak ere erritmo eta indar handia ematen dio filmari. Iriartek aitortzen duen bezala, aspaldi da animatzailearen jarraitzailea, eta filmaren hirugarren zuzendaria izango balitz bezala da: "Emaitza zoragarria da, sentsazioa da bazaudela errealitatea Tamararen burutik bizitzen".

Merinok eta Iriartek hainbat proiektutan egin dute lan elkarrekin, *Asier ETA biok* (Euskal Zinemaren Irizar Saria, 2013) filmean elkar ezagutu zutenetik. Diotenez, etorkizunean elkarrekin sortzen jarraitzeko asmoa dute, "profesionalki maite-mindu baikara".

Dokumentala Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian estreinatu zen -Zinemiran lehiaketatik kanpo lehiatuko da- eta bertan harrera bikaina izan zuen: Publikoaren Saria irabazi zuen, inoiz jaialdian egon den puntuaziorik altuenarekin.

**EVERY YOU EVERY ME**

AENNE SCHWARZ  
CARLO LJUBEK

Written & Directed by MICHAEL FETTER NATHANSKY

**Nephilim**  
PRODUCCIONES

con el cine europeo

72 SSIFF | Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián Colaborador

SSIFF WIP EUROPA